

# ALTZA PORRU!

2011ko abendua / 43. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28  
[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) / [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418-01

## URTEKO BALANTZEA

2011 urtea oparoa izan da Euskal Herriko Trikitixa Elkartearentzat. Orain arteko ildoari jarraiki, urteroko ekimenei jarraipena emateaz gain, atzean geratutako edota aspaldian egin gabeko zenbait gauzei ere heldu zaie aurten.

**-San Josetako jaialdia:** Martxoaren 19arekin bat, larunbatez egin zen Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan 2011ko San Josetako Trikiti Jaialdia. Sei partaide izan ziren bertan: Agirrebeña Anai-arrebak eta Arkaitz Allur, Edune Iturbe eta Oihana Irastortza, Itxaso eta Irune Elizagoien, Esne Zopak taldea, Javier Lopez Jaso eta Marcelo Eschrich, eta Astiasaran anaiak eta Leire. Ikus entzuleek saio eder batekin gozatu ahal izan zuten.

**-Faborez 5 diskoa:** Faborez bildumako bosgarren alea kalera-teea egokitu da aurten. KD honetan Olarte eta Urdangarin, Elortza anaiak, Arkaitz Allur eta Idurre Arriola eta Astiasaran II eta Izer izan dira protagonistak. Aurrekoak bezala, harrera ona izaten ari da pieza zaharren bildumako azken ale hau. Faborez bildumarekin egin izan den moduan, aurten ere aurkezpen erromeria egin zen. Zumarragan izan zen, uztailaren 4an, astelehenez. Santa Isabel jaien egitarauaren barruan sartu zuten aurkezpen erromeria jendetsua izan zen.

**-Geure Kolkotik 2011:** laz ekin zitzaion Geure Kolkotik izeneko sorkuntza berrien bilduma honi, eta iaz bezala, aurten ere bost trikitilari izan dira euren pieza berriak disko honetarako sortu dituztenak. Eneko Dorronsoro, Iker Goenaga, Lurdes Alkorta, Laja II a eta Epelde hain zuzen ere. Fandango eta Arin-arinez gain, baltsak eta mazurkak ere topa daitezke bertan, trikitilari bakoitzak bere ukitua eman dio diskoari.

**-Euskal Herriko Trikitixa Eguna:** Ekainaren 4an izan zen lurreta eta Durangon. Urte batzuk baziren jada Euskal Herriko Trikitixa eguna egiten ez zela baina aurten, bazegoen egun hau ospatzeko aitzakia. Jose Javier Abasolo "Tiliño" iurretarra omendu nahi izan zuen Trikitixa Elkarteak, lurreta eguna berreskuratzen eta mantentzen egindako lan oparoarengatik. Eguraldia lagun, ospatu zen trikitixa eguna. Euskal Herriko Txoko ugaritatik etorri ziren trikitilari eta trikiti zaleak; goizean kalejira egin, Tiliñori omenaldia eskaini lurretako plazan,

Kalejiran berriz Durangoko Landako gunera joan, bertan bazkaldu eta arratsaldean soinu jotzen saio bat egin ondoren Gozategi taldearekin erromeria izan zen.

**-Inpernuko Pozaren IX. Jardunaldiak:** Soinu Txikia munduan, horixe izan da aurtengo jardunaldien gaia. Urtero bezala, hitzaldia eta saio praktikoa izan ditu aurtengoak ere. "Soinu ttikiketa" izan zen Carles Velda trikitilariak bere hitzaldirako hautatutako izenburua. Saio praktikoa arduraren berriz, Imuntzo eta Beloki trikitilariak izan zuten. "Munduan barna" izenburupean, euren diskografian txertatutako estilo ezberdineko kantak eskaini zituzten. Jardunaldiok Donostiako Euskal Jaien astean ospatu ziren; irailaren 5 eta 8an hain zuzen.

**-X.Nazioarteko Trikitixa Jaialdia:** Hurrengo orrialdean dituzue xehetasun gehiago.

**-Landakanda, panderoaren erregea liburu-diskoa:** Soinuaren Liburutegia izeneko bildumako zortzigarren alea da honakoa, eta panderojole bati eskaintzen zaion lehena era berean. Ramon Zubizarreta, "Landakanda"-ren ibilbidea, biografia, anekdotak eta ibilerak biltzen ditu liburuak. Miel A. Elustondo idazle azpeitiarra izan da liburu hau egiteaz arduratu dena. Prentsaurrean azaroaren 24an eta jendaurrean Azkoitiko udalean, joan den azaroaren 26an aurkeztu zen. Etxekoak, lagunak, soinujoleak, herrikideak... Jende ugari izan zuen alboan Ramon Zubizarretak egun gogoangarri hartan. San Andres jailetan murgilduta egonik garai horretan, kalejiran hasi zuten eguna Landakandaren hainbat lagunek.

**-Durangoko azoka:** Abenduaren 4tik 8ra izan zen Durangoko azokaren azken edizioa. Goiz eta arratsaldeko txandak betetzeko, bolondres askoren laguntza izan zuen Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta lerro hauen bitartez **eskerrik beroena** eman nahi genizueke txandaren bat egin zenuten guztioi.

**-Egutegia:** Azken bi urteotan mahai gaineko 12 orriko egutegia kaleratu badugu ere, aurten formatu aldaketa izan da. Hormako egutegia berreskuratu da; argazki bakarrekoa bada ere, ilargiaren egutegia, jai egunak eta egun bereziak zeintzuk diren adierazten du.

## X. NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Urriaren azken asteburua berezia izan zen oso Euskal Herriko Trikitixa Elkartearentzat. Hainbat hilabetez prestaketa lanetan aritu ondoren, asteburu borobila ospatzeko garaia iritsi baitzen. Urteurren hau aitzakiatzat hartuta, Oñatiko Lizargarate Trikitixa Elkartearekin elkarlanean antolatu genuen bi jaialdiz osatutako asteburua.

Lehenengo jaialdia, Andoaingo Bastero Kulturgunean izan zen, urriaren 28an, gaueko 22:00etan. Orain arteko nazioarteko jaialdietan egin izan den moduan, Euskal Herriko partehartzaileez gain, atzerriko musikariak ere izan ziren aurtengoan. Irlanda, Okzitania eta Gaztela Leongo kideak izan ziren hain zuzen gonbidatuen artean. Trikitixa bibolina uztartu zituzten musikariak honakoak izan ziren.

- Jon Ostolaza eta Juan Arriola (Euskal Herria)
- Diego Galaz eta Jorge Arribas (Gaztela Leon)
- Arrabots taldea (Euskal Herria)
- Cyrille Brotto eta Alexandra Lacouchie (Okzitania)
- Maixa Lizarribar, Ines Osinaga, Maite Loidi eta Xabier Zeberio (Euskal Herria)
- Stephen Doherty eta Patrick Dooley (Irlanda)

Jaialdi honetan, musikari hauek aurkezteko ardura, hainbat aurpegi ezagunek izan zuten. Hala nola, Tapia eta Leturia, Xabi Solano, Ixiar eta Amaia Oreja, Izer eta Alabier, Gari eta Iñaki, Agurtzane eta Jon Elustondo,... Elkarteak egindako proposamena onartuta, oholntza gainera igo ziren bikoteka, musikariak aurkezteko. Ahalegin berezi hau egin izana asko estimatzen du Elkateak eta eskerrak eman nahi dizkie gainera egindako lan txukunarengatik.

Biharamunean, urriaren 29an, Workshop-ak izan ziren goizean. Atzerriko musikariak gehiago ezagutzeko, zein estilo jotzen duten jakiteko, nola moldatzen diren ulertzeko, eta musikaz gozatzeko aukera eskaini zuten Oñatiko



© ARGAZKIA: GERARDO PLAZAOLA

Kultur Etxean egindako solasaldi musikatuan. Hauen ondoren, eta mokadutxo egin ostean, jaialdian parte hartu zuten artista euskaldunen txanda izan zen. Batzuen hasiera garaiak, besteen peripeziak eta orohar bibolina eta trikitixa uztartzeko ahaleginak izan zituzten hizpide, beti ere, musikaz jantzita.

Eguerdian, Larrain Gain Elkartearen izan zen bazkaria. Jende ugari elkartu zen bertan eta soinua zein bibolina joz bazkaloste eder bat pasatzeko parada izan zuten bertan. Arratsaldean berriz, Oñatira jaitsi eta tabernetako emanaldiez gozatzeko aukera izan zen. Jaialdian parte hartu zuten atzerriko musikariez gain ordea, emanaldi hauetarako beste partaide batzuk ere animatu ziren: Agurtzane eta Ion Elustondo, Izer, Laja eta Narbaiza, Tapia eta Leturia... Taberna barruak lepo beteta eta kanpoan ere giro bikaina izan zen iluntzean.

Afaria berriz, kiroldegiko frontoian ospatu zen. Ehunka lagun bertaratu ziren eta giro bikainean ekin zitzaion ondorengo erromeriari. Hainbat taldek eskaini zituzten euren pieza eta doinuak; soinu, pandero zein bibolin. Aurretik prestatutakoak nahiz unean-unekoak. Bertan sortutako giro bikainak gainera, kalean jarraitu zuen, Oñatin trikiti eta bibolin doinuak zabaltzen aritu baitziren gau osoan zehar.



© ARGAZKIA: GERARDO PLAZAOLA

Hurrengo egunean, arratsaldean izan zen Oñatiko jaialdia, Institutuan izan zen arratsaldeko 17.30etan. Andoaingo partaide berberak izan ziren oholntza gainera igo zirenak; hala ere bakoitzak bere ukitua eman zion eta eskaintza zertxobait aldatu zuten ia musikari gehienek.



© ARGAZKIA: EHTE

Gozategi taldearekin erromeria izan zen Trikitixa Egunean, Landako gunean.

## Gozategik disko berriarekin ospatuko du 20.urteurrena

Taldearen abesti arrakastatsuenak bilduko dituzte 2012ko otsailean kaleratuko duten disko berrian. Hogehi urteotako kanta esanguratsuenak ikutu berriarekin grabatu dituzte eskuartean duten lan honetarako. Jendea dantzan jarri duten kantak dira hain zuzen ere. Taldekideen esanetan, “hogei urteotako kantak diren arren, gaiak gaurkotasun handikoak izaten jarraitzen dute” eta “ilusioz beteta” daudela diote Gozategikoek. Mikel Irazoki produktore artistikoaren eta Yuri Nogeira perkusio jolearen laguntza izan dute 12-14 pieza izango dituen diskoa osatzeko.

## TRIKITI TXAPELKETAK:

### Euskal Herriko trikitilari gazteen XX. Txapelketa, Zaldibarren:

Joan den azaroaren 27an ospatu zen Zaldibarren, Euskal Herriko Trikitilari gazteen XX. Txapelketa. Kanporaketak Agurainen eta Azkoitian izan ziren. Zaldibarko Udalak eta Koral Elkarteak antolatutako txapelketa honetan, Itaso eta Irune Elizagoien, Etxalarko ahizpak izan ziren txapeldunak. Bigarren saria Ander Beldarrain eta Eider Iraolak (Orio-Zestoa) osatutako bikoteak lortu zuen. Iraolak bere aldetik, panderojole onenaren garaikurra jaso zuen. Bikote hau izan zen gainera epaileen iritziz, trikitixa ondoen jo zuen bikotea. Sailkapeneko hirugarren postua, bestalde, Xabier Urtasunek eta Eider Pikabeak eskuratu zuten.



© ARGAZKIA: IBON ERRATZU

# GALBAHEA

“Eskua zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta hobe panderista. Baina, batez ere, erritmoa eraman behar du. Panderaren lana da hori. Beti neurri batean joan behar du panderoak... Behar baino azkarrago jotzen badu, soinujoleak ere azkarrago jo behar du, eta ni azkarrago, hi azkarrago... Etengabeko soka litzateke hori. Hortik sekula onik ez litzateke etorriko.”

*“Landakanda, panderoaren erregea” liburuko pasarte.*

“Gosek azaroaren 5etik 12ra bitarte Amerikako **Estatu Batuetan bira** egin du, hain zuzen, San Frantzisko eta Boise hirietan kontzertuak eskainiz.

*“Euskal-amerikarrek harreman ugari izan ditugu” azaldu digu Ines Osinagak, Goseko abeslari eta soinujoleak. “Esan zigutenez, ez ahaztu gu 8. probintzia garela”. Toki ezberdinetan aritu dira: San Frantziskoko eta Boiseko **Euskal Etxe** edota San Frantziskoko musika-aretoetan. “Harrera oso ona izan da batzuetan zein besteetan” eta beste behin frogatu da euskararekin atzerrian ere komunikatu daitekeela.”*

**www.mondraberri.com-en**, 2011ko abenduaren 2an argitaratua.

# ZESUMA

## - Esne Beltza taldeak atsedena hartuko du

Udaberrira arte, oholta gainera lanean etena egingo du Esne Beltza taldeak. Orain gutxi kaleratu dute euren hirugarren lana, eta orain, atsedena hartzeko garaia iritsi zaiela adierazi dute taldekideek. Maiatza ingurura arte, eskenatokitako lana albo batera utziko dute, itzuleran indartsu eta gogoz egon daitezen.

## - Datu aldaketak, jakinarazi mesedez

Bazkideen datu basea eguneratuta izatea komeni da. Hori horrela, inolako aldaketarik egiten baduzue; telefono zenbaki, helbide, kontu korronte zenbaki... jakinaraztea eskertuko genizueke. Horretarako **trikitixa@trikitixa.net** helbidera edota Elkarteko 943.83.28.28 telefonora deitu dezakezue.